



JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA AIRE ZABALEAN

1. Egin al daiteke jarduera fisikoa eta kirola taldeka (korrika egitea, bizikletaz ibiltzea?)

Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan, kirol-jarduera honako arau hauen arabera garatu ahal izango da:

- Federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa aire zabalean, bakarka edo taldeka egin ahal izango da, kontaktu fisikorik gabe, eta gehienez 6 pertsonako taldeetan aldi berean

Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan, kirol-jarduera honako arau hauen arabera garatu ahal izango da:

Kirola bakarka bakarrik egin ahal izango da, eta bertan behera geratuko da taldeko edozein kirol-jarduera, bai entrenamenduan, bai lehiaketan, atal honetan jasotako salbuespenetan izan ezik. Honako hauek egin ahal izango dira:

- Gimnasioetan, kirol-klubetan, igerilekuetan eta kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak eta aire zabalekoak egin ahal izango dira, sei laguneko taldeetan gehienez (azken hori, bakarrik ingurune naturalean eta jendetzarik gabeko hiriguneetan).

2. Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea jarduera fisikorako eta kirolerako?

Kirol-jarduera orotan, nahitaez erabili beharko da maskara. Hauek dira salbuespenak: eremu naturaletan, hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, lehiaketa federatuan, profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden kirolarien eta taldeen entrenamenduan eta lehiaketan eta kanpoan egiten den instantzitate altuko une berezietan.

3. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea udalerrian oinez edo bizikletaz ibiltzeko?

Bai, nahitaezkoa da.

4. Baimenduta al dago ehiza-jarduera modalitate guztietan, bai eta ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza ere, modalitate guztietan?

Bai, bizi den udalerrian edo ohiko joan-etorriak dituzten udalerrri mugakideetan mugikortasuna baimendua dago, lurralde historikoa edozein dela ere eta betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia 1,5 metrokoa bada.

5. Nahitaezkoa al da maskara erabiltzea ehiza-jarduera guztietan, bai eta ibaiko, itsasoko, kiroleko eta aisialdiko arrantzako modalitate guztietan?

Bai, nahitaezkoa da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izan.

6. Zein da baimendutako edukiera kirol-eremuetan, patinaje-pistetan (skating) edo aire zabaleko erabilera publikoko espazioetan?

Esparruaren azalerako 4 metro koadroko gehieneko edukieran pertsona 1.

7. Nori dagokio erabilera publikoko espazio horiek antolatzea, bai eta garbitasun- eta higiene-baldintzak bermatzea ere?

Udalerriei dagokie.

8. Beste udalerri batera joan zaitezke jarduera fisikoa aire zabalean egiteko?

Bai, jarduera fisikoa aire zabalean egin dezakezu zure udalerrian edo ohiko joan-etorriak dituzten udalerri mugakideetan, lurralde historikoa edozein izanda. Zure ibilgailuan joan ahal izango duzu.

KIROL-INSTALAZIOAK (Igerilekuak barne)

9. Joan zaitezke beste udalerri batera gimnasioetara, kiroldegietara edo/eta kirol-instalazioetan edo aire zabalean programatutako jardueretara?

Bai, baimenduta dago bizilekua dagoen udalerria ez den beste udalerri batera mugitzea, mugakidea ez bada ere, gimnasioetan, kirol-klubetan edo kiroldegietan programatutako ikastaro edo jardueretarako, eta jarduera fisikoa edo kirol-jarduera aire zabalean eta gehienez sei pertsonako taldeetan egitea. Beti ere jatorrizko udalerriko edo joango den udalerriko Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa bada

Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan, programatutako jarduerak egin ditzakezu bizilekua duzun herrian edo ohiko joan-etorriak dituzten udalerri mugakideetan, lurralde historikoa edozein izanda ere.

10. Baimenduta al dago kirol-instalazioetan banaka kirola egitea?

Bai, instalazioaren berezko protokoloak errespetatuz

11. Baimenduta al dago kirol instalazioetan kirola taldeka egitea?

Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan:

Bai, Banaka edo taldeka egin ahal izango da, kontaktu fisikorik gabe, eta gehienez 6 pertsonako taldeetan aldi berean, pertsonen arteko distantzia errespetatuz eta edukiera baimendutako edukieraren ehuneko 50era mugatuta.

Taldeka ematen diren ikastaroetan, gehienez 6 lagunek parte hartu ahal

izango dute talde bakoitzean, eta ematen den espazioan ezarritako gehieneko edukiera errespetatuko da.

Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan: EZ, taldeko edozein kirol-jarduera eten egiten da. Kirola, bakarka bakarrik egin ahal izango da. Ezin izango da kiroldegiko kantzak, frontoiak, etab., alokatu kirola taldeka egiteko. Bizikideak salbuesten dira.

Salbuetsita daude gimnasioetan programatutako ikastaroak edo jarduerak, Dekretuak ezarritako neurriak jarraituz, betiere maskara erabilia aire zabalean zein barruko instalazioetan, kanpoan egiten den intentsitate handiko jarduera fisikoko une berezietan, gehienez 6 laguneko taldeetan, pertsonen arteko segurtasun distantzia eta %50eko edukiera errespetatuz.

12. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea kirol instalazioetan?

Bai, aire zabaleko zein itxiko kirol-instalazioetako kirol-jarduera orotan nahitaez erabili beharko da maskara.

Igerilekuetan eta kanpoan egiten den intentsitate altuko jarduera fisikoko une berezietan izan ezik.

13. Zein da kirol-instalazioetan, igerilekuak barne, baimendutako gehieneko edukiera?

Baimendutako gehieneko edukieraren %50 izango da.

14. Aldagelak eta dutxa-guneak erabil daitezke?

Bai, aldagelak erabili ahal izango dira betiere gehieneko edukieraren ehuneko 30eko okupazioarekin. Halaber, duxak erabili ahal izango dira, baldin eta banaka erabiltzen badira. Maskara nahitaez etengabe erabili beharko da, duxatzeko unean izan ezik, eta une oro errespetatuko da erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu.

Hala ere, komeni da gogoraraztea aerosolak transmisio-bide garrantzitsuak direla, eta beraz, distantziarik eta aireztapenik gabeko espazio itxiak saihestu behar direla.

15. Ikastaroak edo jarduerak taldeka egin daitezke?

Bai, gehienez ere 6 pertsonako taldeetan eman ahal izango dira eskolak, betiere maskarekin egiten badira, kanpoan egiten den intentsitate handiko jarduera fisikoko aparteko uneetan izan ezik, eta aforoaren edukiera ehuneko 50era mugatuta badago.

16. Klase batean talde bat baino gehiago egon daitezke aldi berean?

BAI, talde bat baino gehiago egon daitezke aldi berean, maskara erabiltzen bada, kanpoan egiten den intentsitate handiko jarduera fisikoko une berezietan izan ezik, taldeen arteko distantzia errespetatzen bada, taldeak ondo mugatuta badaude eta taldeen arteko harremanik ez badago.

17. Taldeko arduradunak izan al dezake harremanik kirolariarekin?

Ez, kontaktua ez dago baimenduta inoiz.

18. Pertsona bat izan daiteke talde bat baino gehiagoren arduraduna aldi berean?

Bai, pertsona bat talde baten baino gehiagoren arduraduna izan daiteke.

19. Talde adina arduradun egon al daitezke?

Bai, talde bakoitzean arduradun bat egon daiteke, eta ezin da haien artean kontakturik izan.

20. Zein da kirol-instalazioak irekitzeko eta ixteko baimendutako ordutegia?

Instalazioak goizeko 6etatik aurrera ireki ahal izango dira jendearentzat eta 21:00etan itxiko dira. Ordu horretatik aurrera, langileek geratzen den barne-jarduerak egin ditzakete.

ENTRENAMENDU ETA LEHIAKETA FEDERATUAK ETA PROFESIONALAK**21. Entrenatu dezake kirolari federatu batek?**

Bai, bizi den udalerria ez den beste udalerrri batera entrenatzera joan daiteke, baldin eta jatorrizko udalerriko eta joango den udalerriko, Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua azken 14 egunetan, 100.000 biztanleko 500 baino txikiagokoa bada.

Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan. Kirol federatuko entrenamenduak bertan behera geratuko dira. Bakarrik, lehiaketa profesionalean eta erdi-profesionalean murgilduta dauden kirolariek eta taldeek egin ahal izango dituzte entrenamenduak. Era berean, Basque Team-eko kirolariak eta teknikariak; eta goi-mailakotzat katalogatutakoak.

22. Lehiatu dezake kirolari federatu batek?

Bai, bizi den udalerria ez den beste udalerrri batera lehiatzera joan daiteke, baldin eta jatorrizko udalerriko eta joango den udalerriko, Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua azken 14 egunetan, 100.000 biztanleko 500 baino txikiagokoa bada.

Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 edo gehiagokoa duten udalerrietan. Kirol federatuko txapelketak bertan behera geratuko dira. Bakarrik, lehiaketa profesionalean eta erdi-profesionalean murgilduta dauden kirolariek eta taldeek egin ahal izango dituzte entrenamenduak. Era berean, Basque Team-eko kirolariak eta teknikariak; eta goi-mailakotzat katalogatutakoak.

23. Entrenamenduetarako joan-etorriak nolakoak izango dira?

Entrenamenduetara joateko eta talde-kirolak egin aurreko eta ondorengo uneetan, segurtasuneko pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia, sei laguneko taldeak eta maskara erabiltzeko oinarritzko prebentzio-neurriak gordeko dira.

24. Maskara erabiltzea derrigorrezkoa al da?

Bai, une oro. Kirol-jarduera orotan, nahitaez erabili beharko da maskara. Hauek dira salbuespenak: eremu naturaletan, hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, lehiaketa federatuan, profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden kirolarien eta taldeen entrenamenduan eta lehiaketan eta kanpoan egiten den instantzitate altuko une berezietan.

25. Zeintzuk dira lehiaketa profesionalak?

Futboleko Santander eta Smartbank Ligak eta saskibaloiko Endesa Liga (ACB). Baita Liga hauetan parte hartzen duten taldeen nazioarteko lehiaketak ere.

26. Zeintzuk dira lehiaketa erdi-profesionalak?

Egutegi ofizialeko estatuko eta nazioarteko lehiaketa ezberdinak eta baita Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketak ere; hauek guztiak kategoriatan absolutuan. Kategoriatan absolutua baino lehenagokoetan, estatuko edo nazioarteko lehiaketak ere sartuko lirateke.

Atal honetan sartzen dira ere kirol autoktonoen goreneko lehiaketak maila absolutua.

27. Lehiaketa eta entrenamenduetan gaudenean, aldagelak erabili daitezke?

Bai, aldagelak erabili ahal izango dira betiere gehieneko edukieraren ehuneko 30eko okupazioarekin. Halaber, dutxak erabili ahal izango dira, baldin eta banaka erabiltzen badira. Maskara nahitaez etengabe erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik, eta une oro errespetatuko da erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira erabiltzen diren bitartean eta, gainera, ireki aurretik eta itxi ondoren. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu. Hala ere, komeni da gogoraraztea aerosolak transmisio-bide garrantzitsuak direla, eta beraz, distantziarik eta aireztapenik gabeko espazio itxiak saihestu behar direla.

ESKOLA KIROLA**28. Zer da eskola-kirola?**

Lehendakariaren urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuan ezarritakoaren ondorioetarako, eskola-kiroltzat hartzen da federatu gabeko kirol-jarduera antolatu oro, baldin eta 6 eta 16 urte bitarteko ikasleek eskola-orduetatik kanpo egiten badute derrigorrezko eskolaldian, edozein dela ere jarduera antolatzen duen erakundea eta aldi berean eskola-kiroleko programetako den ala ez.

29. Zer jarduera egin dezakete eskola kirolean?

Eskola-kiroleko entrenamenduei berrekin ahal izango zaie, eta gehienez ere sei pertsonako taldetan antolatu beharko dira, taldeak berdin mantenduz, Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 baino gutxiago duten udalerrietan.

Eta eskola-kiroleko entrenamenduak bertan behera geratuko dira, Covid-19 kasu positiboen intzidentzia-tasa metatua, azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 edo gehiago duten udalerrietan.

30. Eta lehiaketa?

Eskola-kiroleko lehiaketak etenda daude.

31. Eremu gorrian dagoen udalerri batetik eskola kiroleko jarduerak egiteko beste udalerri batera joan daiteke?

Ez, ez dago baimenduta. Salbuetsita daude eskolaz kanpoko kirol-jarduerak ikasketak egiten dituzten ikastetxeetan egiten dituzten ikasleak.

32. Pertsona bera, talde baten baino gehiagoren arduraduna izan daiteke aldi berean?

Bai, pertsona bera talde baten baino gehiagoren arduraduna izan daiteke.

33. Maskara erabili behar da eskola kirolean?

Bai. Eremu naturaletan, oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan, uretako jardueretan eta kanpoan egiten den instantzitate altuko une berezietan izan ezik.

34. Aldagelak eta dutexak erabil ditzakete eskola kirolean?

Ez, ezin dituzte aldagelak eta dutexak erabili, erabiltzaileek erabili behar dituzten igerilekuetako aldagelak izan ezik.

35. Eskola kiroleko jarduerak protokoloren bat izan behar dute?

Foru Aldundietako Eskola Kiroleko Programetan izena emanda dauden entitateek egiten dituzten jarduerak eta horiek baimentzen dituzten beste jarduerak, indarrean dauden arauak jarraikiz eguneratutako jarduketa protokoloa izan beharko dute.

Ikastetxeetan egiten diren jarduerak hauen protokoloak errespetatu beharko dituzte eta, halaber, hirugarrenen instalazioak erabiltzen direnean, horietarako ezarritako protokoloak errespetatu beharko dira.

36. 2007. urtean eta ondorengo urteetan jaiotako ikasleek lizentzia federatua lor dezakete?

Oro har, egungo osasun-egoerak irauten duen bitartean, foru-organismoek ez dute baimenik emango 2007an eta hurrengo urteetan jaiotako eskola-umeentzako lizentzia federatuak emateko. Inguruabarrek hala eskatzen dutenean, Foru Aldundiek zenbait salbuespen baimendu ahalko dituzte, betiere Eskola Kiroleko Euskal Batzordearen onespenerarekin.

LEHIAKETAK. KIROL-EKITALDI ETA IKUSKIZUNAK.

37. Zein da eskumena duen erakundea lehiaketa garatzeko baimena eman behar duena?

Baimena ematea bidezkoa denean, erakunde eskuduna, egoera arruntean eskuduna dena izango da.

38. Joan al daiteke lehiaketa, ekitaldi edo kirol-ikuskitun bat ikustera?

Ez, debekatuta dago jendea edozein kirol-ekitaldietara joatea.



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 15a

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA